

URRETXU-ZUMARRAGA / 'Liburuak plazara!' ekimena gaur hasiko da, ikastaro batekin

Aldaketekin dator liburuak herritarrei hurbiltzeko ekimena, oraingoan ez da liburuekin merkatu txikirik egingo

Miriam Luki

Arratsaldean Zumarragako udal liburutegian egingo dute helduentzako ipuin kontaketa ikastaroak hasiera emango dio aurtengo Liburuak plazara! ekimenari.

Oraingoan Urretxu eta Zumarragako kultur batzordeek aurreko urteetan jarraitutako eskema aldatu nahi izan dute eta bigarren eskuko liburuak bildu eta ondoren horiekin merkatu txikia ez dute egingo. Horren ordez, liburuak protagonista izango dituzten zenbait ekimen antolatu dituzte. Kultur zinegotziek esan dutenez, ekintza hauen helburua irakurzaletasuna sustatzea da.